



## **Mutrikuko Udala**

# **EULOGIO ULAZIA PLAZAKO FONDABERRI TXANDAKAKO APARKALEKUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

### **1. artikulua. Izaera juridikoa**

Eulogio Ulacia plazan kokaturiko Fondaberri aparkalekua, zerbitzu publiko bateri loturiko ondasun bat izanik, funtzionamendua izango da haren izaeraren, loturen, jendearen erabilerarako irekieraren eta legeen, erregelamenduen eta gainontzeko xedapenen arabera.

### **2. artikulua. Xedea**

Araudi honen helburua Eulogio Ulazia plazako aparkaleku mugatuaren funtzionamendua eta erabilera arautzea da autoentzako edota 3.000 kiloko tonaje gordina duten ibilgailuentzako.

Ez dira erabilera publikokoak izango Udalak bere egiten dituen plazak. Plaza horiek ERRESERBATUA dioen errotulua edukiko dute.

### **3. artikulua. Aparkatzeko plaza motak**

Aurreikusten den erabilera mota bakarra orduen arabera txandakako araubide orokorra da.

### **4. artikulua. Funtzionamendurako ordutegia**

Noizbehinka erabiltzeko aparkalekuaren ordutegia honako hau da:

Asteleheneretik domekara, 00:00etatik 24:00etara.

### **5. artikulua. Erabiltzaile motak eta ordainketak**

Aparkalekuaren bost erabiltzaile mota aurreikusten dira:

- a) Noizbehinkako erabiltzaileak.
- b) Hilabeteko txartela duten erabiltzaileak.
- c) Lan-txarteldunak.
- d) Urteko txartela duten erabiltzaileak.
- e) Egunero 90 minuturako txartela duten erabiltzaileak.
- f) Egunero 180 minuturako txartela duten erabiltzaileak.

Azpimarratu beharra dago aparkalekuaren funtzionamendua ibilgailuak bertara heltzen diren ordenaren arabera izango dela. Erabiltzaileen artean, mota bateko zein besteko izan, ez da lehenatasunik egongo, eta libre dauden aparkalekuak momentuko erabilgarritasunak baldintzatuko ditu. Ez da modurik egongo plazaren bat erabiltzaile zehatz bati lotzeko. Salbuespen bakarra Udalak bere erabilera pribaturako erreserbatutako plazak izango dira. Plaza horiek erreserbatuta daudela adierazten duen marka edukiko dute.

### **6. artikulua. Noizbehinkako erabiltzaileak**

Ordutegiaren arabera txandakako aparkalekuaren erabilera honako arauari lotuta egongo da:



## **Mutrikuko Udala**

- a) Mota honetako aparkalekuetan ohikoa den funtzionamendua izango du: ordutegia kontrolatzen duen sistema edukiko du, eta ordainketa indarrean dagoen tarifaren arabera izango da.
- b) Erabiltzaileak aparkatzeko eskubidea edukiko du aparkatzeko plazaren bat libre dagoen kasuetan, gainontzeko erabiltzaileek inolako diskriminaziorik gabe, salbu urteko txartela dutenentzako erreserba. Plazen erabilgarritasuna aparkalekuaren kanpoko aldeko argizatutako kartelak adieraziko du.
- c) Erabiltzaile mota honentzako indarrean dauden tarifak jendaurrean eta ondo ikusteko tokian jarriko dira.
- d) Erabiltzaile mota honentzako aparkalekuaren erabilera ordutegia 4. atalean adierazitakoa izango da.

### **7. artikulua. Hilabeteko txartela duten erabiltzaileak**

Hilabeteko txartelek honako ezaugarriak dituzte:

- a) Hilabeteko txartela eskuratuz gero, ez da ordaindu beharko aparkalekua erabili bakoitzeko. Txartelaren baliozkotasuna hilabetekoa izango da.
- b) Hala ere, zerbitzuaren gainontzeko muga guztiak ezargarriak izango dira (gehienezko egonaldi etengabea).
- c) Hilabeteko txartela esleituko zaie hala eskatzen duten eta Mutrikuko udalerrian erroldatuta dauden pertsonari.

### **8. artikulua. Lan-txartelak**

Hilabeteko lan-txartelari ezartzen zaion erregimen bera ezarriko zaio. Hala eta guztiz ere, honako zehaztapenak ditu:

- a) Erabiltzaile mota honek aparkalekuaren erabilpenerako ordutegi zehatza dauka: 07:00etatik 22:00etara asteleheneetik ostiralera.
- b) Lan-txartel hauek lana Mutriku egiten ari direla egiaztatzen duten edozein eremutako profesionalari esleituko zaizkie.

### **9. artikulua. Urteko txartela duten erabiltzaileak**

Urteko txartelak honako ezaugarriak ditu:

- a) Urteko txartela eskuratuz gero, ez da ordaindu beharko aparkalekua erabili bakoitzeko. Txartelaren baliozkotasuna urtebetekoa izango da.
- b) Eremu erreserbatu bat edukiko dute, baina plaza erreserbatu moduan ez da ulertu beharko.
- c) Udalak momentu bakoitzean erabakiko du mota honetako zenbat plaza erreserbatuko diren.
- d) Txartel mota hau eskuratzeko, eskaera egiteaz gain, honako baldintzak bete beharko dira: Mutriku erroldatuta egotea, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergaren udal erroldan alta emanda egotea eta aipatutako zergaren ordainketa egunean edukitzea.
- e) Urteko txartelaren ordainketa Udalak horretarako ezarritako kontu korrontera helbideratutako hileroko kuoten bidez egingo da. Ordainketak egitean 15 egun baino gehiagoko atzerapena egonez gero, urteko txartela berehala baliogabetuta geldituko da.
- f) Urteko txartelaren erabilera honako kausen ondorioz ebatziko da:



## **Mutrikuko Udala**

- Hileko ordainagiria edo ordutegiaren araberako txandakako aparkalekuak egindako hileko likidazioa ez ordaintzea.
- Erabiltzailearen borondatea; idatziz eta kontratua amaitu baino hilabete lehenago aurkeztua.
- Erregelamendu edo araudi aplikagarri honetako edozein arau ez betetzea.

### **10. artikulua. Egunero 90 minutuko txartela duten erabiltzaileak**

Egunero 90 minutuko txartelek honako ezaugarriak dituzte:

- a) Egunero 90 minutuko txartela eskuratuz gero, ez da ordaindu beharko aparkalekua erabili bakoitzeko. Egunero 90 minutuko epea bete ondoren, noizbehinkako erabiltzaileentzako ezarritako tarifak ordaindu beharko dituzte. Ordainketa 91. minututik aurrerakoa izango da, 1 minutua izango balitz bezala.
- b) Txartel hau eskuratzearekin batera, txartel plastifikatu bat jasoko dute erabiltzaileek. Txartel horrek aparkalekua barrura sartu ahal izateko balioko du.
- c) Txartel mota hau eskuratu ahal izateko, eskaera egiteaz gain, ezinbestekoa izango da ondoko baldintzetako bat betetzea:
  1. Mutriku erroldatuta egotea.
  2. Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergaren udal erroldan alta emanda egotea.
  3. Mutriku kokaturiko etxebizitza baten Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea.
- d) Txartelak urtebete naturaleko indarraldia edukiko du (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).
- e) Txartel plastifikatua eskuratzeko, erabiltzaileek urtero hamar euro (10,00 €) ordaindu beharko dituzte.
- f) Txartela transferiezina izango da.
- g) Txartel hau eskuratu duen erabiltzaileak 10,00 € ordainduko ditu eskaera egiten duen hilabetea edozein izanda ere.
- h) Txartela galduz gero, erabiltzaileak 5,00 € ordaindu beharko ditu berriagatik. Udaltzainek emango diote baja galdutako txartelari.
- i) Txartel hau eskuratzeko, Udalak horretarako ezarritako kontu korrontera banku bidezko transferentzia egin beharko da. Ondoren, eskaerarekin batera, ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko da udaltzaingoan.

### **11. artikulua. Egunero 180 minutuko txartela duten erabiltzaileak**

Egunero 180 minutuko txartelek honako ezaugarriak dituzte:

- a) Egunero 180 minutuko txartela eskuratuz gero, ez da ordaindu beharko aparkalekua erabili bakoitzeko. Egunero 180 minutuko epea bete ondoren, noizbehinkako erabiltzaileentzako ezarritako tarifak ordaindu beharko dituzte. Ordainketa 181. minututik aurrerakoa izango da, 1 minutua izango balitz bezala.
- b) Txartel hau eskuratzearekin batera, txartel plastifikatu bat jasoko dute erabiltzaileek. Txartel horrek aparkalekua barrura sartu ahal izateko balioko du.
- c) Txartel mota hau eskuratu ahal izateko, eskaera egiteaz gain, ezinbestekoa izango da ondoko baldintzetako bat betetzea:



## **Mutrikuko Udala**

1. *Mutrikun erroldatuta egotea.*
  2. *Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergaren udal erroldan alta emanda egotea.*
  3. *Mutrikun kokaturiko etxebizitza baten Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea.*
- d) *Txartelak urtebete naturaleko indarraldia edukiko du (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).*
- e) *Txartel plastifikatua eskuratzeko, erabiltzaileek urtero 20,00€ ordaindu beharko dituzte.*
- f) *Txartela transferiezina izango da.*
- g) *Txartel hau eskuratuko duen erabiltzaileak 20,00 € ordainduko ditu eskaera egiten duen hilabetea edozein izanda ere.*
- h) *Txartela galduz gero, erabiltzaileak lau euro (4,00 €) ordaindu beharko ditu berriagatik. Udaltzainek emango diote baja galdutako txartelari.*
- i) *Txartel hau eskuratzeko, Udalak horretarako ezarritako kontu korrontera banku bidezko transferentzia egin beharko da. Ondoren, eskaerarekin batera, ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko da udaltzaingoan.*

### **12. artikulua. Aparkalekuaren titularraren eskubideak eta betebeharrak**

Aparkalekuaren zerbitzuaren titularraren eskubide eta betebeharrak ondorengoak izango dira:

1. Sarrera baimendutako erabiltzaileei aparkatzeko espazioa eman, beti ere, plazen erabilgarritasunaren arabera.
2. Erabiltzaileari eguna eta sarrera ordua adierazten dizkion aparkalekuko ziurtagiria edo frogagiria eman.
3. Ziurtagiriaren eramaileari utzitako egoera berean itzuli ibilgailua eta funtzionalki hari erantsitako osagai eta gehigarriak (finkoak eta banaezinak), baita ibilgailu motaren arabera, bere izaeragatik edo balioagatik ohikoak direnak ere.
4. Finkoak eta aldagarriak diren gehigarriak eta gainerako objektuak erabiltzaileak berarekin hartu beharko ditu. Hala egin ezean, haien itzulketa ez da izango aparkalekuaren titularraren erantzukizuna.
5. Erraz hautemateko moduan ipini beharko dira prezioak, ordutegiak eta erabilera eta funtzionamendu arauak. Azken horiek libreki ezarri ahal izango ditu aparkalekuaren titularrak.
6. Erreklamazio-orriak eskura eduki.
7. Erabiltzailearen zein ibilgailuaren jabearen aurrean aparkalekuaren titularrak erantzun beharko du erregelamendu honetan eta aplikagarriak diren lege-mailako xedapenetan aurreikusten diren betebeharrak guztiz edo zati baten ez bete izanagatik sortzen diren kalteengatik eta galerengatik.
8. Aparkalekuko titularrak, beste edonoren aurretik, ibilgailua atxikitzeke eskubidea izango du aparkalekuaren prezioa ordainduko denaren berme gisa.
9. Ezarrita dauden prezioak kobratu.
10. Aurreikusitako zigor-araubidea bete.
11. Aparkalekuko titularrak sarrera ukatzea erreserbatuta dauka, bai ibilgailuei, bai gidatzen zein barruan doazen pertsoneri.
12. Aparkalekuko titularrak pasabideen eta pasabiderako guneen erabilpen eskubidea gordetzen du, aparkalekuko elementu komunak eta zerbitzuak konpontzeko helburuarekin.

### **13. artikulua. Aparkalekuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak**

Aparkalekuko erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak honako hauek dira:



## **Mutrikuko Udala**

1. Erabiltzaileek ezingo dute aparkalekuaren egituraketari, azpiegiturei, zerbitzuei edo elementu komunei kalterik egin diezaieken inolako obrarik edo eraldaketarik egin.
2. Erabiltzaileek ezingo dute eskatu aparkalekuaren mantenurako eta erabilgarritasunerako beharrezkoak ez diren azpiegitura, zerbitzu eta hobekuntza berrien ezarpena.
3. Guztiz debekatuta dago aparkalekuak erabiltzea ibilgailua aparkatzea ez den beste zerbaitearako.
4. Pasabideak ibilgailuak pasatzeko eta maniobrak egiteko erabiliko dira, eta gainontzeko espazioa ibilgailuak aparkatzeko izango da; baita zerbitzu orokorretarako eta bainugelentzako ere. Hori dela eta, debekatuta dago ibilgailuak aparkatzeko izendatutako espazioetatik kanpo ibilgailua gelditzea edo aparkatzea; bereziki, pasabideetan eta aparkalekurako sarreretan.
5. Aparkatutako ibilgailuetan zein aparkalekuetan erabat debekatuta dago material edo produktu sukoiaren, gogaikarrien, toxikoen edo arriskutsuen edukitze edo biltegitratzea.
6. Debekatuta dago giltzak eta txartelak hirugarren bati uztea, edozein kasutan.
7. Debekatuta dago, jarraian, zazpi egun baino gehiagotan ibilgailua aparkatuta edukitzea.
8. Udalaren eta gainontzeko erabiltzaileen aurrean erabiltzailearen erantzukizuna izango dira betebeharrak ez betetzeagatik edota esparruaren barruan gidatzerakoan trebetasun faltagatik sor ditzakeen kalteak eta galerak.
9. Erabiltzailea ez izan arren, ibilgailuaren jabea ibilgailuarekin sortutako kalteen eta galeren erantzule izango da.
10. Aparkalekuko arduradunak erabilerari zein segurtasunari buruz emandako arauak eta jarraibideak bete.

### **14. artikulua. Aparkalekuaren etengabeko egonaldiaren muga**

Etengabeko egonaldia da ibilgailua aparkalekuan sartzen denetik ateratzen den unera arte pasatzen den denbora. Aparkalekuaren txandakako izaera dela eta, etengabeko egonaldiaren muga 72 ordukoa da. Aipatutako denbora tartea bukatzean, eta erabiltzailea ze motatakoa den kontuan hartu gabe, gainordaina aplikatuko zaio. Ibilgailua aparkatuta edukitzeko muga astebetekoa izango da. Behin denbora hori igarota, ibilgailua bertan behera utzia izan dela ulertuko da, eta hartu behar diren neurriak hartuko dira. Ibilgailua kentzeagatik eta tratamenduagatik sortzen diren gastuak ibilgailuaren jabeari fakturatuko zaizkio.

### **15. artikulua. Aparkalekuaren zainketa**

Aparkalekuan 24 orduko zainketa sistema egongo da eta sarrera-irteerretarako kontrol automatikoa. Aparkalekua irekita dagoen orduetan segurtasun sistema udaltzaingo zerbitzuarekin osatuko da.

### **16. artikulua. Aparkalekuan utzitako ibilgailuen eta objektuen kalteen erantzukizuna**

Legeari jarraituz, aparkalekuko erabiltzaileen erantzukizuna dira instalazioetan eta gainontzeko ibilgailuetan sortutako kalteak.

Mutrikuko Udala ez da izango aparkalekuan utzitako ibilgailuetan edo haien barruan dauden gauzetan egindako kalteen (totalak zein partzialak) erantzule; ez kalteak asmo txarrez egindakoak direnean, ezta ezinbesteko kausak eragindakoak direnean ere. Salbuespen bakarra honakoa izango da: ibilgailuen kalteak lapurreta edo sute baten ondorio izatea. Kasu horietan kaltetuek kalte-ordaina jasoko dute.



## **Mutrikuko Udala**

### **17. artikulua. Urteko txartelak esleitzeko metodoa**

Esleipena egiteko bi modalitate daude:

#### 1. Eskaerak baino plaza gehiago egotea

Eskaerak Udal Esku-hartze Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

Eskaerak aztertuko dira, eta onartuak izango dira 8. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten heinean. Aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira:

1. Urteko txartelaren eskaera-orria.
2. Nortasun agiria.
3. Erroldatze ziurtagiria.
4. Trakzio Mekanikodun Ibilgailuentzako zerga Mutrikun ordaindu izanaren ordainagiria.

Eskaeren izapidea Esku-hartze Zerbitzuan aurkezten diren ordenaren arabera izango da, eta horren arabera izango da esleipena ere.

Eskaera onartutakoan dagokion txartela igorriko da eta giltzak emango dira.

#### 2. Plazak baino eskaera gehiago egotea

Modalitate honetarako gordeta dauden 50 plazak baino eskaera gehiago egongo balira, jarraituko den izapidea honakoa izango da:

Eskaera guztiak aztertu ondoren, onartutakoaren artean zozketa publikoa egingo da txartelen eta giltzen esleipena egiteko.

Zozketa Mutrikuko udaletxean eta jendurrean egingo da. Epaimahaia Alkateak eta alderdi politikoetako ordezkari banak osatuko dute. Bokala udaletxeko idazkaria edo hark izendatutako funtzionarioa izango da. Udaletxeko kontu-hartzailea ere mahaian egongo da.

Plazak libre geldituz gero, zozketako zerrendari jarraituko zaio. Zerrenda bukatzean, deialdia egingo da berriro ere.

### **18. artikulua. Obligazioen betetzea**

Aparkaleku hau erabili nahi duen interesatuek, edozein abonatu modalitatetan, Mutrikuko Udalarekiko obligazio fiskalak eguneratuta eduki beharko dituzte.

### **19. artikulua. Arau-hausteentzako zigor-araubidea**

#### 1. Araubide orokorra

Ezarri den zigor-araubidea edozein aparkaleku publikotan ezarritako araubide bera da (kalean).

Isunak berehala Trafikora bidaliko dira, bertan behera utzitako ibilgailuenak izan ezik.

Zigorrek ezartzeko ahalmena Alkatearena da.

#### 2.- Hiru egun jarraian baino gehiagotan aparkatzea

Ibilgailua aparkalekutik atera gabe hiru egun baino gehiago egongo balitz, minutuko 0,03 euroko gainordaina ezarriko zaio aparkalekutik irteteko ordainketa egiterakoan.

#### 3.-Garajeen bertan behera utzitako ibilgailuak



## **Mutrikuko Udala**

Ibilgailuren bat aparkalekutik atera gabe astebete baino gehiago egongo balitz, Udalak ibilgailua ateratzeko eskubidea edukiko du.

Bertan behera utzitako ibilgailuak baztertu egingo dira eta zigortuak izango dira. Ibilgailua bueltan jasotzeko, lekualdaketa eta garabi gastuak ordaindu beharko dira, baita ibilgailua aparkalekura sartu zenetik atera bitartean sortutako kalte eta galerak ere. Gainera, ibilgailu horren jabeak ez du edukiko aparkaleku publikorik alokatzeko aukerarik Udalak ezarritako epe batean. Epe horren zenbatekoa aldatu egingo da gertaeraren larritasunaren eta 72 orduak eta autoa lekuz aldatu artean pasatutako denboraren arabera.

### 4.- Zenbait ibilgailuk txartel/kontrol bera erabiltzea

Txartel/kontrolari behar ez den erabilera emateagatik txartela berehala indargabetuta geldituko da. Gainera, 100 eta 300 euro bitarteko zigorra jasoko du erantzuleak.

3. atalean bezalaxe, ibilgailuaren jabeak ez du edukiko aparkaleku publikorik alokatzeko eskubiderik epe zehatz batean. Epea Udalak ezarriko du gertaeraren larritasunaren arabera.

### 5.- Behar ez den edo debekatuta dagoen gunean aparkatzea

1 atalean ezarritakoaren arabera zigorra ezarriko zaio erantzuleari eta halakorik egiten duen lehengo aldia ez balitz, 3. ataleko bigarren paragrafoan ezarritakoa.

### 6.- Material sukoiak, toxikoak, lehergarriak... dituzten ibilgailuak aparkatzeko debekua

Egintza hau oso falta larritzat joko da, eta 300,00 eta 1.000,00 € arteko isuna jasoko du erantzuleak. Gainera, garaje publikoetara sartzeko aukera galduko du betirako.

Egintza bereziki larria balitz, edo ondorioz balego, dagokion epaitegia jakinaren gainean jarriko litzateke.

## **20. artikulua. Tarifak**

Erabiltzailearen arabera dira tarifak ere:

a) Noizbehinkako erabiltzaileak. Tarifak tarteka kontatuko dira eta bost minutuko moduluetan biribilduko dira.

1. Ordubete edo gutxiago: 0,50 €
2. 1-4 ordu bitartean: 0,015 €/min.
3. 4 orduetik aurrera, itxierara arte 0,024 €/min.
4. Itxita dagoen artean 0,005 €/min.

b) Giltzarik gabeko abonatuak: 41,29 €/hileko

c) Hirigune historikoko ostalaritza arloko abonatuak: 8,060 €/hileko

d) Lan-txartela dutenak: 17,36 €/hileko

e) Ondoko atala ezabatu egiten da:

72 orduetik aurreragoko egonaldietarako errenergua: 0,03 €/minuto.

BEZ kanpo kasu guztietan.

Errenergua berdinetan kobratuko zaie noizean behingoak zein abonatuak diren erabiltzaileei.



## **Mutrikuko Udala**

Tarifa hauek, hala badagokio, ekitaldi bakoitzeko ordenantza fiskal orokorren onarpenaren bitartez eguneratuko dira edo Eulogio Ulazia plazako Fondaberri txandakako aparkalekuaren funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren aldaketa bidez.

### **21. artikulua. Erregelamendu honen baldintza orokorrei atxikimendua**

Aparkatzeko ezarritako erabileren arabera, plazen erabilpena kontratatzen duten pertsonak (modalitatea edozein izanda ere) erregelamendu honetan jasotako baldintza orokorretara atxikituta daude eta hura betetzera derrigortuta daude.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan xedatu gabekoari buruz, Hiri izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzeko Ordenantza izango da kontuan edo, bere kasuan, Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna arautzen duen 18/1989 Legearen testu artikulatuak ezarritakoak aginduko du.

### **XEDAPEN DEROGATZAILEA**

Gai honi buruz Ordenantza honen aurretik emandako udal agindu guztiak eraginik gabe geratuko dira.

### **AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza aldaketa hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mutrikun, 2016ko apirilaren 29an